# ***<u>GUION LITÚRGICO</u>***

## CAMPAÑA DE LA PASTORAL SOCIOCARITATIVA
## 26 de marzo de 2017

## "CONTIGO construyendo comunidad"

## Entrada:

Bienvenidas/os a la celebración eucarística. Estamos en plena cuaresma, a las puertas de la Semana Santa. Dios es el Pastor bueno que cuida de su pueblo, como lo cantaremos en el salmo de hoy. Y en este contexto de gloria, la Pastoral Sociocaritativa de la Diócesis nos invita a construir comunidad con Aquel que nos reúne, así como con aquellos que nos llaman a una vida mejor, más humana y hermanada, más fraterna y encarnada. Nos ilumina la luz bautismal de Jesucristo salvador, del que somos testigos fieles y agradecidos.

## Acto Penitencial

Reconozcamos, con la ayuda del Señor, esos pecados que tanto daño hacen a la vida comunitaria y pidamos arrepentirnos de ellos con sinceridad:

- Tú que buscas nuestra conversión y esperas pacientemente nuestra vuelta a la luz. **Señor, ten piedad.**
- Tú que nos acoges siempre sin condiciones y deseas nuestra comunión fraterna. **Cristo, ten piedad.**
- Tú que construyes con nosotros una vida nueva, sin rupturas, egoísmos ni cinismos. **Señor, ten piedad.**

## Monición a las Lecturas

Las lecturas de hoy nos introducen en un mundo de gracia, porque lo hemos sido agraciados de verdad. Somos bautizados, y lo somos para acoger y vivir la fuerza de la luz de Cristo, somos hijos de esa luz que dirá San Pablo. Alejarnos de las tinieblas estériles, buscar la justicia, la bondad y la verdad que agrandan al Señor es nuestro gozoso reto. La luz que ilumina al ciego del evangelio está con nosotros para que seamos comunidad de vida eterna ofrecida a todos.

## Apuntes para la Homilía

El relato del evangelio que acabamos de escuchar referido a la curación del ciego de nacimiento es, sobre todos, un relato bautismal que, nos debería llevar a tomar conciencia de nuestra condición de bautizados. Aparecen los temas de la luz iluminadora y el lavado en el agua.

Cuando se escribió este texto, la autoridad judía expulsaba de la sinagoga a los judíos que creían en Jesús. No eran parte de

aquella comunidad. Fueron excluidos radicalmente. Siempre ocurre algo parecido. Necesitamos encerrarnos en nosotros mismo en nombre de la identidad. Ampararnos en nosotros mismos excluyendo a los disidentes. Parece algo consustancial a la condición humana, de ahí las infinitas rupturas, conflictos y guerras de todo tipo. Pero el cristianismo es una manera nueva de vivir. La comunidad de los distintos unidos en el mismo Amor que es Dios mismo, nos convoca a superar lo que parece imposible, nuestras divisiones. Mirar a cada persona como hijo de Dios y ponernos a su servicio para crear una comunidad CONTIGO como dice el lema de esta campaña.

Un cristiano es aquel que en Jesús ha encontrado lo mejor de la humanidad, lo más valioso, lo que ilumina esta vida tan llena de dificultades y sinsabores. Él es la luz y nosotros, como dice San Pablo en la lectura a los Efesios de hoy, "sois luz en el Señor". Se trataría de caminar como "hijos de la luz…, buscando lo que le agrada al Señor…"

No cabe duda de que a pesar de nuestras debilidades, nuestra historia está llena de luces que han iluminado e iluminan las oscuridades de esta vida. Luces que hablan de servicio, entrega, generosidad, bondad, justicia y paz. Luces que alegran a muchos presos y familiares que tiene que padecer esas situaciones de exclusión que, a veces de legitiman con el runrum de "se lo merecen". Luces que acompañan a un gran número de enfermos y ancianos que necesitan la cura y el cuidado de personas que les traten como seres humanos que no miran si son productivos o improductivos sino que saben que son parte de nosotros mismos, necesitados de cariño y ternura. Y tantas otras personas pobres, vulnerables, solitarias, transeúntes que nos piden que les miremos a la cara sin juzgar ni condenar por su situación y encuentran acompañantes amigos, personas sencillas y generosas capaces de detenerse, conversar, dar una moneda o un bocadillo.

El ciego del evangelio, al final habla de lo que ve su corazón: “que era ciego y ahora está sano” porque alguien ha actuado con él con amor real y activo, haciendo lo que podía hacer, dar la vista, ponerlo a caminar por la vida, darle otra oportunidad, hacer que se sienta una persona, curada, sanada, salvada, feliz, dignificada.

## Oración de los fieles

Invoquemos la misericordia de Dios sobre todos los hombres y mujeres de la tierra.

- Para que la Iglesia viva este tiempo cuaresmal con el deseo de una profunda conversión para estar cada día más unida a Jesucristo. **Roguemos al Señor.**
- Para que los que se preparan para recibir los sacramentos de la iniciación cristiana experimenten en sus vidas el gran regalo de haberse encontrado con Jesús vivo. **Roguemos al Señor**
- Para que todos aquellos que viven situaciones de grave necesidad encuentren en nosotros el respeto debido y la ayuda solidaria necesaria. **Roguemos al Señor.**
- Para que todos los lugares del mundo que viven en situaciones de conflicto puedan encontrar el camino hacia la paz definitiva. **Roguemos al Señor.**
- Para que los que hoy nos hemos reunido para celebrar el memorial del Señor seamos renovados y fortalecidos por la luz de Dios. **OREMOS.**

Escúchanos, Señor, Jesús, y ten piedad de nosotros y del mundo entero. Tú, que vives y reinas por los siglos de los siglos. Amén.

## Despedida

En la Pastoral Sociocaritativa desde Caritas, la  Pastoral Penitencia y la Pastoral de la Salud, nuestra Iglesia trabaja por la justicia ciertamente, pero sabemos que, el amor supera ese mínimo necesario de dar a cada uno lo suyo, lo que se le debe por derecho. Nosotros somos una comunidad de vida cristiana que nos dejamos iluminar por la luz de Cristo que hoy gozosamente acabamos de recibir y celebrar en la Eucaristía que terminamos.

# ***LITURGIA-GIDOIA***

**SOZIOKARITATEZKO PASTORALTZAREN KANPAINA**
**2017ko martxoaren 26a**

## **"ZUREKIN komunitatea eraikitzen"**

## **Sarrera:**

Ongi etorri eukaristia-ospakizunera. Garizuma betean gaude, Aste Santuaren ateetan. Jainkoa bere herria zaintzen duen artzain ona da, gaur abestuko dugun salmoak dioen moduan. Eta aintzazko testuinguru honetan, Elizbarrutiko Soziokaritatezko Pastoraltzak gonbita zabaltzen digu biltzen gaituen Harekin eta bizi hobe, humanoago, senidetasunezko, anai-arreben arteko eta haragituago bat izatera deitzen gaituztenekin komunitatea eraikitzeko. Jesukristo salbatzailearen bataio-argiak argitzen gaitu, haren lekuko fidel eta esker onekoak garen heinean.

## Penitentzia-ekintza

Onar ditzagun, Jaunaren laguntzarekin, komunitateko bizitzari hainbeste min ematen dioten pekatuak, eta eska dezagun zintzotasunez haietaz damutzea:

- Zuk, gure konbertsioa bilatzen duzu eta gu argira itzuli bitartean pazientziaz itxaroten diguzu. **Erruki, Jauna.**
- Zuk, beti baldintzarik gabe hartzen gaituzu eta gure anai-arreben arteko elkartasuna desio duzu. **Kristo erruki.**
- Zuk, gurekin bizi berri bat eraikitzen duzu, etenik, norberekoikeriarik eta zinismorik gabe. **Erruki, Jauna.**

## Irakurgaiei buruzko oharra

Gaurko irakurketek graziaz beteriko mundu batera garamatzate, benetan zorionekoak izan baikara. Bataiatu egiten gara, Kristoren argiaren indarra hartu eta bizitzeko, eta San Pablok esango duen argi horren seme-alabak gara. Gure bozkariozko erronka ilunpe antzuetatik urruntzea eta Jauna handi egiten duten justizia, ontasuna eta egia bilatzea da. Ebanjelioko itsua argitzen duen argia gurekin dago, guztioi eskainitako betiereko bizitzarako komunitatea izan gaitezen.

## Sermoirako oharrak

Entzun berri dugun ebanjelioko pasartea, jaiotzetiko itsutasuna sendatzeari buruzkoa, bataio-kontakizun bat da, eta bataiatuak garela gogoratu eta horren kontzientzia hartzera eraman beharko gintuzke. Argi argitzailearen eta ur bidezko garbiketaren gaiak agertzen dira.

Testu hori idatzi zenean, agintari juduek sinagogatik egozten zituzten Jesusengan sinisten zuten juduak. Ez ziren komunitate haren parte. Zeharo baztertuak izan ziren. Beti gertatzen da antzeko zerbait. Nor bere baitara biltzeko beharra dugu, identitatearen izenean. Nork bere baitan babesa hartuz eta disidenteak baztertuz. Gizatasunetik ezin berezizkoa den kontua dela dirudi, hortik datoz mota guztietako etenak, gatazkak eta gerrak. Baina kristautasuna bizitzeko beste modu bat da. Maitasun bakar batean, Jainkoan, elkartzen garen desberdinen arteko komunitateak ezinezkoa dirudiena gainditzera deitzen gaitu, gure arteko zatiketak gainditzera, hain zuzen. Pertsona bakoitza Jainkoaren seme edo alaba gisa ikustea eta haren esanetara jartzea da, ZUREKIN komunitate bat sortzeko, kanpaina honen goiburuak dioen moduan.

Kristauak Jesusengan aurkitu du gizateriaren onena, baliotsuena, zailtasunez eta nahigabez hain beteta dagoen bizi hau argitzen duena. Bera argia da eta gu, San Paulok gaurko irakurgaian efesoarrei esan dien moduan, “Jaunak duen argia zarete". “Argiaren seme-alaba gisa…, Jaunari atsegin zaionaren bila” ibiltzea litzateke kontua.

Ez dago zalantzarik, gure ahultasunak gorabehera, gure historia bizitzako iluntasunak argitu eta argitzen dituzten argiz josita dagoela. Zerbitzua, eskaintza, eskuzabaltasuna, ontasuna, justizia eta bakea adierazten dituzten argiak. Bazterketa-egoerak jasan behar dituzten preso eta haien familia ugari pozten dituzten argiak, batzuetan “merezita dute” marmarrarekin legitimotzat jotzen baitira egoera horiek. Gaixo eta adineko pertsona askori lagun egiten dieten argiak, produktiboak diren ala ez begiratu gabe gizaki gisa tratatuko dituzten pertsonen sendaketa eta zaintza behar izaten baitute, geure parte direla eta maitasuna eta goxotasuna behar dutela jakinda. Eta beste hainbeste pertsona pobre, babesgabe, bakarti,… duten egoera epaitu eta kondenatu gabe aurpegira begiratzeko eskatzen digutenak, eta lagunak, adiskideak, pertsona arruntak eta eskuzabalak aurkitzen

dituztenak, gelditu, berriketa egin eta txanpon edo ogitarteko bat emateko.

Ebanjelioko itsuak bere bihotzak ikusten duenaz hitz egiten du bukaeran: “itsua zen eta orain osasuntsu dago”, norbaitek benetako maitasun gogotsua eskaini diolako, eta ikusmena itzularazi diolako, eta bizitzan oinez jarri, beste aukera bat eman, pertsona osatu, sendatu, salbatu, zoriontsu egin eta duin bihurtu duelako.

## Fededunen otoitza

Eska dezagun Jainkoaren errukia lurreko gizon eta emakume guztientzat.

- Elizak garizumako garai hau konbertsio sakon baten desirarekin bizi dezan, egunetik egunera Jesukristorekin lotuago egoteko. **Eska diezaiogun Jaunari.**

- Kristautasunean hasteko sakramentuak jasotzeko prestatzen ari direnek beren bizitzetan Jesus bizirik topatu izanaren opari handia bizi dezaten. **Eska diezaiogun Jaunari.**

- Premia larrian dauden guztiek gugan behar duten errespetua eta laguntza solidarioa topa ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

- Gatazkan dauden munduko leku guztiek behin betiko bakerako bidea aurki dezaten. **Eska diezaiogun Jaunari.**

- Gaur, Jaunaren oroitzapena ospatzeko hemen bildu garenok Jainkoaren argiak berritu eta indartu gaitzan**. EGIN DEZAGUN OTOITZ.**

Entzun, arren, Jauna, Jesus, eta izan gure eta mundu osoaren erruki. Zu, errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

## Agurra

Soziokaritatezko Pastoraltzan, Caritasekin, Espetxe Pastoraltzan eta Osasun Pastoraltzan, gure Elizak justiziaren alde lan egiten du betiere, baina badakigu maitasunarekin gainditu egiten dela bakoitzari berea, legez dagokiona, emateko gutxienekoa. Gu bizi-komunitate kristau bat gara, amaitzera doan Eukaristian poz handiz jaso eta ospatu berri dugun Kristoren argiak argitu gaitzan uzten duguna.

.